

Truke programaren 10. aldia hasita dago, eta apirilaren 2an amaituko da

2009/04/21

Martxoaren 23tik apirilaren 2a bitartean iraungo du aurten **Truke programaren 10. aldiak**, hau ere garapen komunitarioko esperientziak trukatzeko antolatua. Aurten 10 lagun ari dira parte hartzen Truke programan, denak **Ertamerika, Hegoamerika eta Afrikatik etorriak**, **Mundukide Fundazioak** eta **Lanki Institutuak** gonbidatuta. Etorritako guztiak egonda daude lehendik Truke programan, beraz, oraingoan partekatuko dituzte bakoitzak bere herrialdean izandako esperientziak eta Euskal Herriko Kooperatiba Mugimenduarenak.



10. aldiaren helburuak

- **Ebaluatzea.** Lehen helburua da ebaluatzea zer eragin izan duen bakoitzaren herrialdean hemendik eramandako ezagutzak.
- **Integratzea, motibatzea eta sentsibilizatzea** bai kooperatibak, kooperatibistak, unibertsitateko ikasleak, Debagoieneko gizartea eta Euskal Herria.
- **Trinkotzea.** Mundukidek eta Lankik bultzatutako interkooperazio sisteman dabiltzan pertsona guztiak.
- **Ospatzea.** Honako hau 10. aldia denez, ospatu nahi da modu berezian, abesti eta guzti.

Partaideak

- Angeles López (Mexiko). FAT erakundekoa.
- Moises Portillo (El Salvador) BAJO LEMPA
- Emilio Rodríguez Peñate (Kuba) APCA
- William Ramirez (Ekuador) SALINERITO
- Victoria Rafael (Mozambique) MARRUPA
- Gilberto Blanco (Kuba) GECA
- Carmen Magdalena Campos (Mexiko) FDHYAC
- Arnaldo Liberato (Brasil) ANTEAG
- Valcir Ramiro de Oliveira (Brasil) MST
- David Efren Salazar (Ekuador) CAIA

Ekintzak

Truke programak hamar egun iraungo du, eta denbora horretan bertako kideek parte hartuko dute hainbat elkarrizketa, bisita, hitzaldi, mintegi eta batzarretan, amaituko direnak **apirilaren 2an festa handi batekin**, egingo dena Huhezín bertan, Eskoriatzan.

Logo berria

Truke programak logoa estreinatu berri du 10. aldi honetan. Yera Sanchez eta Goio Arana Huheziko irakasleek diseinatu dute, biak esperientzia handikoak animazio eta diseinu kontuetan.